

# SINTOMEI ETA DIAGNOSTIKOARI LOTUTAKO PROTOKOLOA

**Ez dute eskolara etorri behar COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak (sukarra, arnasa hartzeko zailtasunak...) dituzten ikasle eta langileek, ezta COVID-19aren diagnostikoa jaso ondoren **isolatuta** daudenek edo etxeko **berrogeialdian** daudenek ere, COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituen pertsona batekin harreman estua izateagatik. **Horren berri eman behar zaio eskolari telefonoz (943 29 70 23)).****

Eskolan dagoela COVID-19arekin bateragarria den sintomatologiarik izango balu ikasle batek, ondorengo **protokoloa** jarraituko da:

1. Ikasleari isolamendu-gelara lagunduko zaio.
2. Familiari deituko zaio.
3. Familia bere osasun-zentroarekin harremanetan jarriko da, haren jarraibideak betetzeko.
4. Eragindako pertsona kasu susmagarritzat joko da eta etxean isolatuta egon behar du proba diagnostikoaren emaitza jaso arte. Emaitza jaso arte ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik adieraziko eta irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du aurrera, higie-neurriak zorrotzuz.
5. Diagnostikoaren emaitza positiboa bada, ikaslearen guraso edo tutoreek eskolari horren berri emango diote. Idazkaritzara (943 29 70 23) deitu behar da.
6. Kontaktuen azterketa egingo da hezkuntza-ingurunean eta handik kanpo, kontaktuak identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginez. Ikastolan harreman estuak identifikatzeko bizikidetza-taldeak hartuko dira aintzat:
  - Baieztatutako kasua bizikidetza-talde egonkor bateko kide bada, harreman estuzat hartuko dira taldeko kide diren pertsona guztiak.
  - Konfirmatutako kasua ez bada bizikidetza-talde egonkor bateko kide, Eskolako harreman estuak identifikatuko dira.
7. Kontaktuak aztertu eta estuzat jotzen direnentzako berrogeialdiko neurriak ezarri ondoren, irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du aurrera, arreta- eta segurtasun-neurriak zorrotzuz.
8. Neurri zorrotzagoak har daitezke balizko agerraldi konplexuak, noizbehinkako komunitate-transmisioa edo kontrolik gabeko transmisio komunitarioa jazoko balira.

**Eskolak arduradun/koordinatzaile bat izango du** bat COVID-19rekin lotutako alderdiak landu edota bideratzeko.

Balizko isolamendu edo berrogeialdian, **eskolak eskola-jardueraren jarraipena egin eta harremana mantendu ahal izateko baliabideak jarriko ditu ikasle zein familientzako.**